

## BRONZE 2 Programa

### Ikasleak

- Normalean sei eta zortzi urte bitarteko haurrak izango dira. (Ez dute bederatzi urte beteko gabonak baino lehen).
- Gehienak gurekin ikasten hasiko dira eta beste batzuk, berriz, gure Bronze 1 ikastarotik datoz.
- Zenbait hitz simple idazteko gai dira.
- Hizkuntz-eskuduntzei dagokionez aurre-A1 mailan daude.

### Ikastaroaren nondik norakoak

Klaseek bi ordu eta erdiko iraupena izango dute, astean bitan (guztira 75 ordu). Ikastaroa, batez ere, entzumenean eta mintzamenean oinarrituko da, baina ikasleek hitz eta esaldi sinpleak irakurri eta idatzi behar izango dituzte. Ikasleek, Jolly Phonics delako metodoa erabiliz letren soinuak eta irakurmen eta idazmen dekodifikazio trebetasunak ikasiko dituzte.

### Ikastarorako materiala

Happy House 2 Ikasle Liburua eta Ariketa Liburua. Jolly Phonics istorioak eta abestiak ahoskeraren eta alfabetizazio trebetasunen garapenerako erabiliko dira.

### Ebaluaketarako ariketak

- 1.Hiruhilekoa: Ikasgelako hizkuntza.
- 2.Hiruhilekoa: Nire buruaren inguruan.
- 3.Hiruhilekoa: Ikasleen interakzioa.

Behelaldean zehazten diren **ikasketa helburuak** CEFRek (Common Framework of References for Languages) emandako ideietan oinarritzen dira eta ikasleek ikastaroan zehar izango duten garapenaren aurreikuspenean oinarritzen dira.

### **Mintzamena: Ahozko interakzioa**

Agurrak erantzuteko gai naiz, adibidez, <i>kaixo, ondo nago, eskerrik asko, eta zu? Agur (Ostegunerarte).</i>
Ikasgelan behar dudan zerbaiten inguruan galdetzeko gai naiz, adibidez, <i>arkatza har dezaket, mesedez?, komunera joan naiteke, mesedez?.</i>
<i>Mesedez eta eskerrik asko</i> esateko gai naiz momento egokietan.
Atsegin eta desatsegin ditudan gauzen inguruan galdera sinpleak erantzuteko eta zein den nire kolorerik, zenbakirik (1etik 10era), janaririk edota animalirik gustokoena esateko gai naiz.
Galdera sinpleak erantzun ahal dut bai/ez edo bestelako hitz bakarria erabiliz galdera ezaguna dudanean eta ikus-laguntza badut, adibidez, <i>Zein kolorekoa da kotxea? Gorria.</i>
Nire eginkizuna garbia denean, istorio eta abestiekin elkarri eragiteko gai naiz.

### **Ahozko ekoizpena**

Koloreak ezagutzen ditut eta hauek erabili ahal ditut gauzak deskribatzeko, adibidez, <i>liburu urdin bat (da).</i>
Ikasgelan diren gauzak izendatzeko gai naiz, adibidez, <i>neska, mutila, irakaslea, klaseko liburua, ariketa liburua, koaderno, carpeta, arkatza, borragoma, bolaluma, igeltsoa, goraizeak, atea, lehioa, mahaia, aulkia, erlojua...</i>
Adjetibo sinpleak erabili ahal ditut gauzak deskribatzeko, adibidez, <i>txakur handia/txikia/polita da.</i>
Galderak egin edota erantzuteko gai naiz abestiren bat kantatuz.
Ikastaroko liburuan azaltzen diren gaietan aurkitzen diren gauza zehatzen izenak gogoratzeko gai naiz, adibidez, <i>animaliak, janaria, aurpegiko atalak, etxea eta</i>

<i>jostailuak... beti ere testuingurua garbia bada eta ikus-laguntza badut.</i>
Gauzak non dauden adierazi ahal dut, adibidez, <i>xagua kaxan dago, borragoma mahai azpian dago...</i>
Ingelesezko 43 soinuak ezagutu eta ekoizteko gai naiz.

**Entzumena**

Ikasgelan ematen diren argibide sinpleak jarraitzeko gai naiz, adibidez, <i>eseri, eskuak gora, hartu zure arkatza, ireki zure liburua...</i>
Entzundako argibideekin klaseko gauzak margotu eta bestelako entzumen ariketa sinpleak burutu ahal ditut, hala nola, esandako objektua borobildu.
Eskulanak nola burutu ulertu eta joku sinpleak jokatu ahal dut ikus-laguntzarekin.
Istorioak jarraitzeko gai naiz baldin eta irudiak edo mimika bezalako ikus-laguntza badut.

**Irakurmena**

Jolly Phonics-eko keinuak gogoratzen laguntzeko erabiliz alfabetoko letrak irakurri eta identifikatu ahal ditut.
Ikasgelan eta liburuan diren hizkuntz helburu simple batzuk irakurtzeko gai naiz.
Hitz sinpleak eta zenbait liburu simple irakurtzeko gai naiz. (Jolly Phonics Level 1).

**Idazmena**

Nire izena idatz dezaket.
Alfabetuko hizkiak, bere soinuaren baitan, idatz ditzaket.
Hitz eta esaldi sinpleak idazteko gai naiz nire dekodifikazio trebetasunak erabiliz.
Arbelatik zenbait hitz eta esaldi kopia dezaket.

**Hizkuntz gaitasunak**

Nire buruaren inguruko galdera sinpleak edo ikasitako gaiak idatz ditzaket, bi edo hitz bakarra erabiliz, baldin eta hitzegiten didan pertsonak poliki egiten badu, testuingurua argia bada eta ikus-laguntza badago, adibidez, keinuak edo irudiak.
--